Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Anarro Imaz Agirre

Ataun, Gipuzkoa (1965)



Aurkibidea

Biografia



Ana Rosa, Anarro bezala ezagunagoa. San Gregorio auzoko Igartzate baserrian jaioa, 13 anai-arrebatan gazteena. Guraso biak Ataungoak zituzten. San Gregorioko eskolan ibili zen lehenengo, gero San Martinen eta Beasaingo lizeoan ondoren. Gaztetxoa zela, herriko neskek futbol taldea sortu zuten herrian (Otso emek); Beasainen eta Añorgan ere jokatu zuen gero, eta Euskal Selekzioarekin jokatzera iritsi zen. Baserritik bizi izan da beti, ganaduarekin. Emakume Baserritarren Elkartekoa da. Elkarrizketa hika izan da.

Zintak

ATA-053

- **Proiektua**: Hikagin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2023-05-18
- **Iraupena**: 84 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Hika hitz egiteko ohitura handia

- **Erref**: ATA-053/003
- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:01:04. **Bukatu**: 00:03:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Hika hitz egiteko ohitura handia du. Txikitatik egin izan dute hika senideen artean eta herrian ahal duen guztian halaxe egiten omen du. Gurasoek hika egiten zieten eta beraiek gurasoei zuka. Anai-arreben artean beti hika. Iloba neska bati zuka egiten dio eta ez daki zergatik.

2. Gazteen hizkuntza-ohiturak?

- **Erref**: ATA-053/004

- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:03:18. **Bukatu**: 00:05:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Gazteek ere hika hitz egingo dutela iruditzen zaio, baina aitortzen du ez dela gazteen inguruan ibiltzen eta ez dakiela ziur. Gaztelaniaren erabilerak gora egin duela dio eta horrek gehiago kezkatzen du.

3. Hitanoaren erabilera-ohiturak

- **Erref**: ATA-053/005
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:05:30. **Bukatu**: 00:08:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Hitanoa erabilera-ohitura batzuekin lotu izan da, baina berak zaharragoei ere hika egin izan die, konfiantza pixka bat izanez gero. Ez du entzun izan ume txikiei zuka egiten zaienik edo ezkondutakoan zuka egin behar denik. Hala ere, inguruko bikoteek elkarrekin zuka egiten dutela dio.

4. Hika egitea gertukoa

- **Erref**: ATA-053/006
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:08:24. **Bukatu**: 00:10:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Kaletarrek eta baserritarrek hika berdin hitz egingo dutela iruditzen zaio, kale aldekoak diren lagunek ere hika egiten dute eta. Batzuetan entzun izan du hika egitea ez dela errespetuzkoa, baina berari kontrakoa iruditzen zaio, hika egiteak konfiantza eta gertutasuna ematen ditu eta.

5. Hika eta genero desberdintasuna

- **Erref**: ATA-053/008
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:10:51. **Bukatu**: 00:12:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Leku batzuetan hika ez dela emakumezkoentzat aproposa entzun izan da.

Berak ez du halakorik entzun. Gizonezko eta emakumezkoen artean bestela ere nahikoa desberdintasun egon dela dio. Garai batean mendietan egiten zituzten festak. Mutilengana hurbiltzen ziren neskak seinalatu egiten zituzten.

6. Garai batean euskaldunak eta baserritarrak gutxietsita

- **Erref**: ATA-053/010
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:13:28. **Bukatu**: 00:14:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Gaztelaniarako joera handitzen ari dela ikusten du. Garai batean euskaldunak eta baserritarrak gutxietsi egiten ziren. Berak ere sentitu izan zuen hori, inguruko herrietara joandakoan. Gaztelaniaz egiteko larri; "defenditzen giñuztenan".

7. Semeei hika eta alabei zuka egitea ulergaitza

- **Erref**: ATA-053/011
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:14:45. **Bukatu**: 00:16:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Guraso batzuk semeei hika egiten diete eta alabei zuka. Ulergaitza egiten zaio, baina berak ere iloba neska bati zuka egiten dio eta ez daki zergatik. Hika egitea gehiago gustatzen zaio, erosoago sentitzen da.

8. Bere buruari noka

- **Erref**: ATA-053/012
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:16:01. **Bukatu**: 00:18:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Hika idazten du askotan, euskara batuan ere bai. Toka-noka zer den. Berak ondo bereizten ditu. Bere buruari hika egiten dio, noka.

9. Abereei toka ala noka?

- **Erref**: ATA-053/013
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:18:16. **Bukatu**: 00:19:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Inoiz ez du pentsatu etxeko abereei toka ala noka egiten ote dien, baina behiei toka egiten ote dien uste du. Leku batzuetan emeak diren animaliei ere toka egiteko joera egon da. Hala ere, bizilagunaren txakur emeari noka egiten omen dio.

10. Hitanoaren eta euskararen egoera Ataunen

- **Erref**: ATA-053/015
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:19:50. **Bukatu**: 00:24:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Hika galtzeak pena handia emango lioke. San Gregorioko umeek zuka egingo dutela uste du. Hitanoaren egoera Ataunen. Euskararen egoera. Gazteek gaztelaniaz asko egiten dutela esaten dute. Gurasoak ere gaztelaniaz entzun izan ditu. Kanpoko jende asko dago herrian. Euskaraz dakitenek ez egiteak ematen dio minik handiena. Berak lehen hitza beti euskaraz egiten du.

11. Umetatik futbolean

- **Erref**: ATA-053/017
- **Iraupena**: 0:04:26. **Hasi**: 00:24:44. **Bukatu**: 00:29:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:
14 anai-arrebatan gazteena da. Herrian ibili zen lehenbizi eskolan eta gero Beasainera joan zen, Lizeora. Kirolzalea izan da beti eta futbolean aritzen zen. Emakumezkoen taldea ere sortu zuten herrian. Beasainen eta Añorgan jokatu zuen eta Euskal Selekzioarekin ere bai, Bartzelonan, Camp Noun. Belauneko lesio batengatik utzi zuen. Garai hartan emakumezko gutxi aritzen ziren futbolean.

12. Emakumeek etxean egindako lana, ikusgaitza

- **Erref**: ATA-053/018
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:29:10. **Bukatu**: 00:30:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Garai bateko emakume baserritarren bizimodua. Amak 13 seme-alaba hazteaz gain, lan asko egin behar izaten zuen. Kanpoan egindako lana gehiago ikusten da, baina etxeko lana oraindik ere ez dela ikusten uste du. Garai batean emakumeek ez zuten izaten banatzeko aukerarik eta egoera jasan behar izaten zuten; gaur egun, berriz, ezer gutxi jasateko prest gaudela uste du.

13. Baserritik bizitzeko arazoak

- **Erref**: ATA-053/021
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:32:33. **Bukatu**: 00:35:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Baserritik bizi ziren, esne-behiekin. Gero anaiak etxetik kanpo lan egiten hasi ziren eta ahizpa batzuk neskame ere bai. Bakoitzak bere bidea hartu zuen eta, azkenean, bi anaia eta bera geratu ziren baserrian. Gaur egun, haragitarako behiak dituzte. Egoera txarra dutela eta laster ezingo dutela horrela jarraitu dio. Jendea ez dago kontzientziatuta bertakoari laguntzeko.

14. Garai baten lanak eskuz, baina erritmo lasaiagoa baserrian

- **Erref**: ATA-053/023
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:37:48. **Bukatu**: 00:39:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Garai batean baserrietan eskuz egiten ziren lan asko, baina erritmoa lasaiagoa zen. Gaur egun erreminta aldetik erraztasun handiagoak daude, baina beti iritsi ezinda. Bizimoduak abiadura handia hartu du. Garai batean eskuz jezten zituzten behiak. Amak omen zuen eskurik onena. 20-25 behi izaten zituzten.

15. Herrian saltzen zuten behi-esnea

- **Erref**: ATA-053/024
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:39:32. **Bukatu**: 00:41:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Garai baten herrian saltzen zuten behi-esnea, etxez etxe. Sobratzen zena Gurelesari saltzen zioten. Herritarrekin harremana. Marmitak. Plastikozko ontzi bat erabiltzen zuen berak esnea botatzeko. Debekatu egin zieten gero, higieneagatik.

16. Aurrerapenak, aldaketak eta genero ezberdintasunak

- **Erref**: ATA-053/026
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:41:43. **Bukatu**: 00:44:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero indarkeria
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Berak beti ezagutu du garbigailua etxean, baina senideek bestelako kontuak ere kontatu izan dizkiote. Telebista inguruko baserri batera ekarri omen zuten lehenbizikoz eta igandetan hara joaten ziren gizonezkoak, kartetan jokatu eta telebista ikustera. Emakumeei ez die entzun izan garai batean tabernara joaten zirenik; gizonezkoak bai. Beraiek neska eta mutil eta adin ezberdinetakoak ibiltzen ziren elkarrekin. Parrandara joateko, gaur egun baino lasaitasun handiagoa zegoela uste du. Garai batean ere egongo ziren sexu-erasoak, baina berak ez du halakorik bizi izan.

17. Emakume Baserritarren Elkarteko kide

- **Erref**: ATA-053/028
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:46:00. **Bukatu**: 00:47:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Emakume Baserritarren Elkarteko kide da. Taldean hika aritzen direla dio. Lan handia egin dut hainbat esparrutan. Emakume baserritarrek kanpoko lanaz gain etxekoa ere egin behar izaten dute eta lan hori ez da ikusten. Elkartearen helburu nagusia elkarri laguntzea eta informazioa elkarbanatzea da.

18. Baserritik bizitzea zaila; etorkizun iluna

- **Erref**: ATA-053/029
- **Iraupena**: 0:05:23. **Hasi**: 00:47:52. **Bukatu**: 00:53:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Gaur egun baserritik bizitzea oso zaila da. Dauden politikek ez dituzte baserritarrak aintzat hartzen. Lur-sailak garbi nahi dituzte, baina ez dute garbitzeko laguntzarik ematen. Jendeak idealizatu egiten du baserriko bizimodua. Agintarien artean ulertzen ez duen jendea dagoela iruditzen zaio. Etorkizuna beltza ikusten du. Arau zorrotzak betearazten dizkiete, askotan zentzu handirik izan ez arren.

19. Umetan San Gregorioko eskolan

- **Erref**: ATA-053/033
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:54:43. **Bukatu**: 00:56:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
San Gregorioko eskolan ibili zen umetan. Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Maistra alkate izandakoa zen, oso gogorra. Bai maistrarekin eta bai geroago izan zuten Martin maisuarekin euskaraz egiten zutela uste du. Gero, San Martingo eskolara pasa ziren eta han ere euskaraz.

20. Baserritarrak baztertuta

- **Erref**: ATA-053/034
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:56:33. **Bukatu**: 00:58:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Aldaketa handia izan zen Beasaingo Lizeora joatea. Baserritarrak herrian baztertuak baziren, han gehiago. Ahizpak kontatzen zion Ataunen bertan ere kaletarrei opariak eramaten zizkiela, onar zezaten. Beasainen inguruko herri txikietakoak elkartzen ziren. Denek egiten zuten euskaraz, baina baserritarrak gutxietsi egiten ziren.

21. Herri txikietako politika

- **Erref**: ATA-053/036
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 01:02:18. **Bukatu**: 01:03:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:
Bere ustez Ataun bezalako herri batean ez litzateke alderdi politikorik egon behar, herriarentzat lan egingo duten pertsonak baino. Askotan zentzu gabeko liskarrak izaten dira politikan eta kontrakoaren ideia ona izan arren, ez da aintzat hartzen. Indarrak bateratu beharrean, elkarren aurka.

22. Inguruko herrietako festetara; San Gregorioko jaiak

- **Erref**: ATA-053/039
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 01:06:14. **Bukatu**: 01:08:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:
Gaztetan Beasain-Ordizia inguruan ibiltzen ziren parrandan, baina gerora ahizpa Etxarrira hasi zenez, beraiek ere bai. Futbola dela eta, Donostia aldean ere asko ibili izan zen. Herrian, San Gregorion festa onak egiten ziren. Herri-kiroletan ere aritzen ziren herriko kideak.

23. Umetako jolasak

- **Erref**: ATA-053/044
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 01:15:48. **Bukatu**: 01:17:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Umetako jolasak: kanikak, txapak, kromoak... Txintxina. Goma ez zitzaion asko gustatzen; baloia bai. Baziren nesken eta mutilen jolasak. Bera ez zen tortolosekin ibili izan, ahizpa nagusiagoak bai. Berari zeintzuk gustatzen zitzaizkion.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-25

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com